



Aiarako Kuadrillak iruzurraren aurka egindako adierazpen instituzionala

Aiarako Kuadrillak erakunde betearazlearen eginkizunak beteko ditu Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean.

Ildo horretan, arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar altuenekin duen konpromisoa adierazi nahi du, bai eta integritate-, objektibotasun- eta zintzotasun-printzipio zorrotzenekiko atxikimendua ere, edozein motatako iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako jarduera duela ikus dezaten harekin harremana duten eragile guztiek.

Kuadrillaren zerbitzuko langileek, enplegatu publikoak diren aldetik, konpromisoa dute, besteak beste, "interes orokorrak zaintzeko, Konstituzioari eta gainerako ordenamendu juridikoari lotuta, eta printzipio hauen arabera jarduteko: objektibotasuna, integritatea, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikorako dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua" (5/2015 Legea, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena, 52. artikulua).

Politika horren helburua da erakundearen barruan iruzurrezko jarduera oro adoregabetuko duen eta jarduera horien prebentzioa eta detekzioa erraztuko duen kultura bat sustatzea, non kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorrak garatuko baitira.

Aiarako Kuadrillak erakunde betearazle gisa bere gain hartu dituen eginkizunen artean, iruzurraren aurkako neurriak abian jartzea dago, Erkidegoko araudiak ezarritakoaren markoan eta proportzionaltasun-irizpideei jarraikiz. Era berean, elkarlanean aritzen da prozesuen arduradun eta kudeatzaileekin, bakoitzak bere erantzukizun-eremuan barne-kontrolko sistema egokia duela ziurtatzeko eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala ezartzen direla bermatzeko.

Iruzurraren aurka borrokatzeko neurri eraginkor eta proportzionatuak jarriko dira abian, aurretik lortutako esperientzian eta iruzur-arriskuaren ebaluazioan oinarrituta.

Era berean, antzemandako irregulartasunak edo iruzur-susmoak salatuko ditu, halakorik balego, barneko jakinarazpen-kanalen bidez, eta agintaritzaren arduradunarekin, kontrol-agintaritzarekin, Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin eta Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoarekin lankidetzan, betiere. Txosten guztiak konfidentzialtasun osoz eta gai hori arautzen duten arauen arabera landuko dira.

Azken batean, kontrol-sistema bat ezarri da: iruzur-ekintzak ahal den neurrian prebenitzeko, detektatzeko eta, halakorik gertatuz gero, haien eragina zuzentzeko.

Kuadrillako Batzarrak 2023-03-30ean onartutako adierazpena